

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Natura 2000 Sareko naturagune babestuan, Laguardiako Aintzirak ES2110021 KBEan dauden Musco, Carralogroño eta Carravalseca urmaelen ingurumena leheneratzeko proiektua jendaurrean jartzeko iragarkia

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 4ko 542/2026 Erabakiaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion Musco, Carralogroño eta Carravalsecako aintziren ingurumena lehengoratzeko proiektuari (ES2110021 KBEa, Laguardiako Aintzirak, Natura 2000 Sareko naturagune babestua), onura publikoaren adierazpenari eta desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubi-deen hasierako zerrendari.

Ebazpenean erabaki zen ingurumena lehengoratzeko proiektuak jendaurrean jartzeko izapidea bete zezala, hoguei egun balioduneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Proiektua Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia Plaza, 4-2.a. Vitoria-Gasteiz) eta Aldundiaren webgunean kontsulta daiteke, esteka honetan: <https://irekia.araba.eus/eu/otras-actuaciones>.

Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera administrazio publikoekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta daudenek bide elektronikoz aurkeztu beharko dituzte nahitaez alegazioak. Gainerakoek, euskarri fisikoan ere egin dezakete Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo 39/2015 Legearen 16.4 artikulua ezarritako beste edozein lekutan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 6a

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARÍA JOSÉ MADEIRA GARCÍA